

# Elkarrekin



☎ 943 44 07 44 • idazkari@caritasgi.org • www.caritasgi.org

4

## 2012KO GABONETAKO KANPAINA

Ezin dugu gaintetik kendu. Denon ahotan dabil bolo-bolo: krisia. Bazter guztietara iritsi da. Eta bidean hainbat gabezia utzi ditu agerian. Benedikto XVI.ak esan bezala, «gure bizitzan eta gizarteko agintariengan etikagaiak sakon berritzen ez baditugu, ezingo dugu krisia atzean utzi».

Bizi dugun egoera ikusita, Caritasek begi kritikoak eta bihotz irekia izateko jarrera sustatu nahi du. Ez hori bakarrik. Lagundu egin nahi die ahulenei, bizimodu duina izateko behar dituzten trebetasunak eta baliabideak lortzeko.

Horretarako kanpaina bat diseinatu dugu, abenduan hasi eta 2013. urte osoan luzatuko dena. Egitasmoak sei zutabe ditu:

- **FAMILIA.** Laguntza eman nahi diegu haurdun dauden eta egoera ekonomiko larria bizi duten amei edo familiei. Seme-alabaren bat izan, eta elikadura, osasuna, liburuak, jantokiak, haurtzaindegiak, eskola-laguntza... ordaintzeko familientzako laguntzak.
- **ETXEBIZITZA.** Besteak beste, alokairuak ordaintzeko laguntzak emango dira. Era berean herritarrak bultzatu nahi ditugu Legegintzako Herri-Ekimenean (LHE) parte har dezaten, egun, kaleratzeen inguruan indarrean dagoen legedia aldatzeko.
- **PRESTAKUNTZA.** Harreman edo hitzarmenak —enplegu-sorguneak edo enplegarritasuna— irakasten dituzten erakunde edo ikastetxeekin. Baliabideak eskainiko dira behartsuenentzat: matrikulak, diru-laguntzak, garraio-gastuen ordainketa...
- **OSASUNA.** Osasun Sistema Publikoak, zenbait prestazioak ez ditu estaltzen (odontologia, optika...). Caritasek akordioak egingo ditu profesionalekin, behartsuenek alor horietan dituzten beharrak betetzeko.



**«Caritasek etsita daudenen artean egon nahi du; itxaropena dakarren karitate bizia indartu nahi dugu, guztion artean gizarte justu eta elkartasunezkoago bat eraiki dezagun»**

• **BEHAR EKONOMIKO OROKORRAK.** Lehendik egiten diren jardueraz gain ekintza gehiago egiteko konpromisoa hartuko du Caritasek: zailtasunak dituztenak hil bukaerara iristeko, alarguntza-pentsio urriak jasotzen dituztenei laguntza ekonomikoa...

• **LANKIDETZA.** Caritasek munduko pertsona eta herrialde txiroenekiko bere elkartasun konpromisoari eutsiko dio.

Laguntzaren kudeaketa Lehen Harrerako sailak hartuko du bere gain, eta laguntzak bertan erabakiko dira ematea edo ez, ebaluazio-batzorde baten bitartez.

### ● elkarrizketa



**ASUN MAISTERRENA,**  
Donostiako Elizbarrutiko  
Caritaseko Gotzain ordezkari berria:

«Denok gara zerbait egiteko gai, beraz, begietara begiratu, bidea egin dezagun lagundu behar dugu»

### ● boluntarioaren ahotsa



◀ Mi voluntariado cubre una necesidad para mí: devolver el amor que yo recibo a través de la relación de ayuda. Mi formación, al margen de mi trabajo, ha estado siempre enfocada a adquirir herramientas para ayudar y acompañar a los demás desde el respeto, la escucha y el interés genuino. El voluntariado me hace crecer como persona, reafirmarme en mis valores, tener un espacio para compartir mi forma de entender, lo que es básico en mi vida: las relaciones interpersonales respetuosas y enriquecedoras. Intento hacer algo primordial para mí en las relaciones: acercarme con respeto, dar amor, escuchar sin juzgar, compartir mi experiencia... ▶

De todos es sobradamente conocido que estamos atravesando una crisis económica y financiera de efectos muy graves. La actual situación en la que nos encontramos hace que constantemente estemos escuchando noticias relacionadas con el rescate, la prima de riesgo, la bolsa, la situación de los bancos, los recortes... olvidando que detrás de todas esas cifras existe el sufrimiento de personas y familias que, en muchas ocasiones, pasan inadvertidas, o quedan en un segundo plano.

Estas noticias muestran la realidad actual que caracteriza el modelo económico y social que impera en nuestro mundo, donde se prioriza el crecimiento económico sobre el desarrollo de la persona.

Desde Caritas promulgamos un nuevo modelo de sociedad. Un modelo que tenga más en cuenta el crecimiento y desarrollo de las personas que el de la economía, y en el que ésta deba girar alrededor del ser humano. Un nuevo modelo de desarrollo donde las decisiones que se adopten tengan como objetivo que todas las personas vayan a vivir mejor. Se trata de construir un modelo de sociedad basado en valores alternativos, como la dignidad de toda persona, la búsqueda del bien común y el destino universal de los bienes, para hacer posible, entre todos, un mundo más justo, fraterno y solidario, lo que exige el compromiso e implicación de cada uno de nosotros.

Estos días son propicios para ser solidarios, compartir nuestros bienes, ayudar al prójimo y abrir nuestro corazón. Pero esta especial sensibilidad no debe limitarse a estas fechas; tenemos que cultivarla para que el espíritu de la Navidad se pueda revivir todos los días y en cualquier momento. Tenemos que ser conscientes de que en las manos de cada uno de nosotros está la posibilidad de hacer mejor la vida a alguien.

Desde Caritas invitamos a todas las personas a recorrer este camino hacia una transformación social. *"Muchas cosas pequeñas, en muchos lugares pequeños, hechas por mucha gente pequeña, pueden transformar el mundo"*. Este proverbio nos invita a soñar con un mundo distinto; y aunque solo lleguemos a transformar la realidad de nuestro espacio más cercano e inmediato, ya habremos conseguido influir, para bien, en nuestro entorno.

José Emilio Lafuente



## ¿DERECHO A LA SANIDAD? ¿DERECHO A LA SALUD?

Dentro del maremágnum de cambios legislativos y recortes a todos los niveles que se han producido y se siguen produciendo en los últimos tiempos, al amparo de la situación socioeconómica actual (recorte del número de medicamentos que se cubren por la sanidad pública...), ahora además contamos con la tan conocida reforma sanitaria (que si bien, de momento no es aplicable en Euskadi, no está tan claro que no lo sea en un futuro cercano).

No por muy anunciada ha sido menos perjudicial. De entrada, se pone en cuestionamiento y se expulsa a determinados colectivos, ciudadanos, del derecho básico de acceso a algo tan fundamental como la sanidad y la salud.

Antes de pararse a buscar otras soluciones –léase mejor gestión de los recursos actuales, racionalización de los mismos, campañas de sensibilización para un sostenimiento responsable del sistema sanitario, etc– se reforma de raíz un derecho fundamental sin evaluar previamente el impacto y las consecuencias que acarrea. Se pasa de considerar la sanidad como un derecho universal a ser considerada una prestación para aquellas personas que reúnan una serie de requisitos. Todo planteamiento se filtra desde una óptica economicista.

Se ha hecho hincapié en que es una reforma que afecta exclusivamente a las personas inmigrantes en situación irregular, pero en realidad ha sido un recorte de derechos encubierto. Se empieza convenciendo a la sociedad en general de que es un cambio necesario, pero una vez aprobada, se descubre que se pierden y recortan derechos para todos.

Quiénes más directamente se van a ver afectadas son las personas vulnerables que acompañamos desde Caritas. Qué casualidad que sean éstas sobre las que recaen todos los recortes. ¿Será porque no tienen dinero? ¿Será porque sin dinero dejan de ser personas? ¿Será porque son ciudadanos de segunda? Sin embargo, quiénes aprueban estas Leyes (y quiénes las apoyan o callan ante ellas), no se dan cuenta o no quieren hacerlo, de que cada día, nuestros participantes, las personas que se nos acercan y junto a las que caminamos y acompañamos, son más y más.

Laguntza Etxea

(Centro de atención al inmigrante de Caritas Gipuzkoa)

## ASUN MAISTERRENA, DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO CARITASEKO GOTZAIN ORDEZKARI BERRIA

### «Denok gara zerbait egiteko gai, beraz, begietara begiratu, bidea egin dezagun lagundu behar dugu»

Gertutasuna, laguntza, hurbiltasuna... hitzak maiz errepikatzen ditu. Bere hiztegia osatzen dute. Irailean hasitako ibilbideari ez dio helmugarik jartzen. Ibiliaz ikasi nahi du. Bidaia-lagun izan nahi du. A, eta gauza bat argi eta garbi du: "Caritasek zuzentasuna du helburu; ez da zuzengabekeriaren estalkia".

#### Caritas oso ezberdina al da kanpotik eta barrutik?

Ez nuen hain erakunde handia zenik pentsatzen. Proiektu batzuk ezagutzen nituen. Ez, ordea, beste batzuk. Ezusteko atsegina izanda. Gogoko dut Caritasen zer nolako lana egiten den.

#### Caritas etxe handia da, beraz?

Bai. Baina oso ondo antolatua dago. Caritas sigla batzuk baino askoz gehiago da. Errealitatea bizi-bizia. Lan egiteko modu bat. Hau da, pertsonak laguntzeko bide bat. Caritasek nortasun propioa du. Ezberdina.

#### Gipuzkoako Caritaseko apaiza ez den lehen Gotzain Ordezkarilaikoa zara.

Kargua ez da inolaz ere pisutsua, ohorea baizik. Eskaintza oso modu naturalean iritsi zitzaidan. Eskertzekoa da gotzainak niregan jarri duen konfiantza. Baina, era berean, horrek erantzukizun handia eskatzen du. Egiteko berri hau erronka handia da niretzat.

#### Eta Paulgo San Vicente egunez sartu zinen estreinakoz etxe berrian.

Bai. Egun aproposa nire burua aurkeztu, eta Caritaseko kideak ezagutzen hasteko. Elizaran ikastetxean lan egiten dudanez, jolasaldian etorri nintzen Caritaseko bilera batean nire burua aurkeztera.

#### Hezkuntzan urteak daramatzazu.

Bai. Txikitatik irakasle izan nahi nuen. Karitatearen Alaben lekameekin, Elizaran ikastetxean, 26 urte daramatzat lanean. Aurretik, Zumaiako San Pedro eskolan bost urte eman nituen. Han lan munduaren gogortasuna ikasi nuen: hasieran aste osoa igarotzen nuen bertan. Erruz ikasi nuen han. Asko. Besteak beste, irakasle izaten. Irakaskuntzak guztia eman dit.

#### Zer da zuretzat kultur aniztasuna?

Gure ikastetxera etorkin pila hurbiltzen dira, eta beste gazteekin batera bat egitea da helburua. Giza aberastasuna. Aniztasuna gauza positiboa da; baita partekatzea ere. Horrek guztiak harremanak aberasten ditu.

#### Krisiak gure gizartea astindu du. Nola erein daiteke bizi dugun ezkortasunean esperantza?

Ez da batere erraza. Caritasera egunetik egunera jende eta kasu gehiago azaltzen ari dira ate joka. Larritasunak jota hurbiltzen dira gainera. Ez dago errezeta magikorik. Baina Caritasek estilo berezi bat du erantzuteko orduan: jarrera, aldamenen egotea, jarraipena, esperantza... Bakardadeari aurre egitea. Bestalde, nahiz eta bakoitzak bere lana izan, instituzio ezberdinen arteko lankidetzak are sakondu behar dugu egoera gogor honetatik irteteko.

#### Guztiok, ezta? Bakardadea ate joka baitator.

Bai. Gaixotasun larria da hori. Teknologia berriek asko lagundu digute baina ezin dugu gurean geratu, etxetik irten behar dugu besteei laguntzeko. Harremanak asko landu behar ditugu.

#### Eguberrietan murgilduta, zein da zabaldu nahi duzun mezua?

Itxaropena eta elkartasuna! Dudarik gabe. Maila ezberdinetan jendea dezente sufritzen ari da: lana galtzeko beldurra... Hori guztiagatik autoestimua eta harremanak hondatu daitezke. Denok gara zerbait egiteko gai, beraz, begietara begiratu, bidea egin dezagun lagundu behar dugu.

#### Caritasek zer ekarpen egin dezake egoera honetan?

Injustiziak salatu. Eta jendearen ondoan egonez bakardadeari aurre egiteko itxaropena landu.

#### Egunetik egunera hain gogoko duzun San Sebastian eguna hurbiltzen ari da.

Bai. Bi urtez, urketari bezala irten izan naiz. Oso gogoko dut festa hori. Oso donostiarra naiz. Union Artesana elkarteak Santa Mariako atarian jotzen

entzutea berezia da niretzat: San Sebastianen irudia argiztatzen dute. Bai toki zoragarria.



«Irakaskuntzak guztia eman dit»

#### HITZETZ-HITZ

**KALE GORRIA.** Gogortasuna. Caritas eremu honetan lan handia egiten ari da.

**ELKARTASUNA.** Behar-beharrezko babesa. Bakardadeari aurre egiteko norbait aldamenen izatea ezinbestekoa da. Gauzak aldatzen ari dira.

**EGUBERRIAK.** Esperantza garaia. Txikitako oso oroitzapen onak ditut. Oinarri erlijiosoa izan arren kontsumismoak bereak eta bi egin ditu. Nahiz eta zaila izan, bere arima berreskuratu behar dugu. Bere benetako zentzua, alegia.

**KONTSUMOA.** Gure bekatua. Behar batzuk ditugula esan digute, eta sinetsita barruraino sartu gara. Hortik ateratzea zaila da oso. Eta kontsumismoan gustura gaudela ematen du gainera.

**FAMILIA.** Oso zutabe garrantzitsua niretzat. Gurasoak bizi ditut eta bi seme ditut (Jon eta Ander). Familia nire benetako luxu eta altxorra da.

**BOSTEKOA EMATEA.** Laguntza, animoa, "zurekin nago", "kontatu nirekin"... esateko modu aproposa.

## KITZIN. COMERCIO JUSTO UN COMERCIO AL SERVICIO DE LAS PERSONAS

El Comercio Justo es una alternativa al comercio tradicional. Frente a los criterios meramente económicos tiene en cuenta los valores humanos, la dignidad, el diálogo y el respeto de trabajadoras y trabajadores, al mismo tiempo que cuida el medio ambiente.

**Caritas Gipuzkoa**, a través de su departamento de **Cooperación Internacional**, y con la colaboración de un nutrido grupo de voluntarios, lleva apostando por el Comercio Justo desde 1997, sensibilizando a la población guipuzcoana y apoyando a diversos grupos que desarrollan sus iniciativas en este ámbito. Asimismo, y con el objetivo de poder ofrecer tanto información como productos de Comercio Justo, pone a disposición de la ciudadanía **Kitzin**, la **tienda de Comercio Justo** ubicada en San Sebastián (calle Narrika, 29). En este establecimiento se pueden encontrar una gran variedad de productos (alimentación, artesanía, cosmética y textil), con la garantía de haber sido elaborados bajo los criterios del Comercio Justo.

Por medio de la tienda y los mercadillos se contribuye a construir un desarrollo sostenible, no dependiente, estableciendo relaciones comerciales basadas en la igualdad y rompiendo mecanismos de dependencia.

### CRITERIOS DEL COMERCIO JUSTO:

- Salarios justos y condiciones laborales dignas.
- Igualdad entre mujeres y hombres.
- No explotación infantil.
- Reducción del número de intermediarios.
- Procesos respetuosos con el medio ambiente.
- Inversión de parte de los beneficios en el desarrollo de la comunidad (educación, salud...).
- Relaciones comerciales a largo plazo basadas en la confianza y el respeto mutuo.
- Funcionamiento democrático de las organizaciones.
- Productos de calidad.
- Información a consumidores y consumidoras.

Si lo deseas puedes visitarnos en la propia tienda (Kitzin) o acercarte a los mercadillos que celebramos en diversas localidades de Gipuzkoa a lo largo de todo el año.

Ahora, más que nunca, ¡regala solidaridad!



Telef: 943 426 946  
[www.kitzin.org](http://www.kitzin.org)



### BIDEZKO MERKATARITZA, ZURE AUKERA SOLIDARIOA

Bidezko Merkataritza ohiko merkataritzaren alternatiba da. Irizpide ekonomiko hutsen gainetik, kontuan hartzen ditu giza balioak, duintasuna, elkarrizketa eta langileen errespetua, eta, aldi berean, ingurumena zaintzen du.

Non aurki ditzakezu Bidezko Merkataritzako produktuak?

Kitzin dendan. (Narrika kalea, 29)

Edota Gipuzkoa osoan antolatu ohi ditugun merkatuetan.